EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Datuak Babesteko
Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de
Protección de Datos

**LANKIDETZA HITZARMENA, EUSKO JAURLARITZAREN ETA DATUAK BABESTEKO EUSKAL BULEGOAREN ARTEKOA, EUSKAL GIZARTEAN DATU PERTSONALAK BABESTEKO FUNTSEZKO ESKUBIDEAREKIN LOTUTAKO AZTERKETA SOZIOLOGIKOAK EGITEKO.**

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE EL GOBIERNO VASCO Y LA AGENCIA VASCA DE PROTECCIÓN DE DATOS PARA LA REALIZACIÓN DE ESTUDIOS SOCIOLÓGICOS RELACIONADOS CON EL DERECHO FUNDAMENTAL A LA PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES EN LA REALIDAD SOCIAL VASCA.**

---

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abenduaren 30a

Vitoria-Gasteiz, a 30 de diciembre de 2013

**BILDUTAKOAK**

Batetik, Jesús María Peña Martinez jauna, Jaurlaritzaren Lehendakaritzako idazkari nagusia, haren izendapena ezartzen duen 2012ko abenduaren 18ko 302/1012 Dekretuaren arabera (2012ko abenduaren 19ko 245. zk.ko EHAA), eta Gobernu Kontseiluaren 2013ko abenduaren 30eko erabakiaren bidez emandako baimena dela bide.

Eta bestetik, Iñaki Pariente de Prada jauna, Euskal Autonomia Erkidegoko Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria, haren izendapena ezartzen duen maiatzaren 8ko 68/2012 Dekretuaren arabera (2012ko maiatzaren 14ko 93. zk.ko EHAA), eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25ko 2/2004 Legearen 15. artikuluaren arabera dauzkan atribuzioen jabe dela.

Bi aldeek behar adina gaitasun dute dagozkien erakundeen ordezkari gisa, eta Lankidetza Hitzarmen hau izenpetzea adostu dute.

**REUNIDOS**

De una parte, D. Jesús María Peña Martinez, Secretario General de la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza, en virtud de nombramiento acordado por Decreto 302/2012, de 18 de diciembre de 2012, (BOPV nº 245 de 19 de diciembre de 2012), y en virtud de la autorización conferida por el Acuerdo de Consejo de Gobierno de 30 de diciembre de 2013.

Y de otra, D. Iñaki Pariente de Prada, en calidad de Director de la Agencia Vasca de Protección de Datos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en virtud del Decreto de nombramiento 68/2012, de 8 de mayo (BOPV nº 93, de 14 de mayo de 2012), y con las atribuciones que le confiere el artículo 15 de la Ley 2/2004, de 25 de febrero, de Ficheros de Datos de Carácter Personal de Titularidad Pública y de Creación de la Agencia Vasca de Protección de Datos.

Ambas partes, que actúan con capacidad suficiente en representación de sus entidades respectivas, acuerdan la firma del presente

Convenio de Colaboración.

## HONAKO HAU AZALDU DUTE

I

Lehendakaritzako egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko 9ko 187/2013 Dekretuak ezartzen du, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen abenduaren 15eko Lehendakariaren 20/2012 Dekretuaren (urtarrilaren 1eko 8/2013 Dekretuak aldatua) 4. artikuluak esleitzen dizkion egitekoak ikusita, egiteko horiek burutzeko, Lehendakaritzak hainbat organo dituela bere baitan, eta horietako bat Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusia dela.

Era berean, Lehendakaritzaren Idazkaritza Nagusia, bere eginkizunak betetzeko, hainbat zuzendaritzatan egituratuta dago, eta, hain zuzen ere, Lehendakariaren Kabinetearen Zuzendaritzari dagokio *"Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen bidez, azterlanak, txostenak eta jarduerak gauzatzea, Jaurlaritzaren Lehendakaritzak gizarte-errealitatearen egoera eta bilakaeraren berri izan dezan"* aipatutako dekretuaren 9.c artikuluan ezarri denez.

II

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa, otsailaren 25eko 2/2004 Legeak arautzen duena, zuzenbide publikoko entea da, nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu erabatekoa dituena, eta bere eginkizunak herri-administrazioekiko

## EXPONEN

I

Que el Decreto 187/2013, de 9 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional de Lehendakaritza, establece que para el ejercicio de las competencias relativas a las áreas de actuación que tiene atribuidas en el art. 4 del Decreto 20/2012, de 15 de diciembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, modificado por Decreto 8/2013, de 1 de enero, Lehendakaritza se estructura en diferentes órganos, entre ellos, la Secretaría General de la Presidencia.

A su vez, la Secretaria General de la Presidencia, para el ejercicio de sus funciones, se estructura en direcciones, correspondiendo a la Dirección de Gabinete del Lehendakari, entre otras funciones *"realizar cuantos estudios, informes y acciones sean precisos para mantener informada a la Lehendakaritza-Presidencia del Gobierno de la situación y evolución de la realidad social, a través del Gabinete de Prospección Sociológica",* artículo 9.c) del referido Decreto.

II

Que la Agencia Vasca de Protección de Datos regulada por Ley 2/2004, de 25 de febrero, es un ente de derecho público, con personalidad jurídica propia y plena capacidad pública y privada, que actúa con plena independencia

inongo loturarik gabe betetzen dituena. Bulegoaren helbururik garrantzitsuena da, Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean eta Autonomia Erkidegoari dagozkion eskumenen barruan, datuak babesteko legeak bete daitezen zaintzea eta nola aplikatzen diren kontrolatzea.

de las administraciones públicas en el ejercicio de sus funciones, cuya principal finalidad es la de velar por el cumplimiento de la legislación sobre protección de datos y controlar su aplicación en el territorio y dentro del ámbito competencial propio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortu eta arautzen duen Lege horrek, 2.1. artikuluan ezartzen duenez, 17. artikuluarekin lotuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak zuzenbide publikoko ahalak gauzatzeko sortu edo kudeatutako datu pertsonaletarako fitxategiak kontrolatuko ditu; hain zuzen ere, honako hauek sortu edo kudeatutako fitxategiak:

a) Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak, lurralde historikoetako foru-organoek, Euskal Autonomia Erkidego barruko toki-administrazioek eta, zuzenbide publikoko ahalak gauzatzeko sortu bazituzten, herri-administrazioen menpeko edo haietara loturiko edonolako erakunde publikoek.

b) Eusko Legebiltzarrak.

c) Herri Kontuen Euskal Epaitegiak.

d) Arartekoak.

e) Lan Harremanen Kontseiluak.

f) Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak.

g) Kooperatiben Goren Kontseiluak.

h) Datuak Babesteko Euskal Bulegoak.

Que la referida Ley de creación y regulación de la Agencia Vasca de Protección de Datos, dispone en su artículo 2.1., en relación con el 17, que la Agencia Vasca de Protección de Datos ejerce sus funciones de control sobre ficheros de datos de carácter personal creados o gestionados, para el ejercicio de potestades de derecho público por:

a) La Administración General de la Comunidad Autónoma, los órganos forales de los territorios históricos y las administraciones locales del ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, así como los entes públicos de cualquier tipo, dependientes o vinculados a las respectivas administraciones públicas, en tanto que los mismos hayan sido creados para el ejercicio de potestades de derecho público.

b) El Parlamento Vasco.

c) El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

d) El Ararteko.

e) El Consejo de Relaciones Laborales.

f) El Consejo Económico y Social.

g) El Consejo Superior de Cooperativas.

h) La Agencia Vasca de Protección de

i) Ebazpen Batzordeak.

j) Interes ekonomiko eta profesionalak ordezkatzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide publikoko korporazioek.

k) Eusko Legebiltzarrak lege bidez sorturiko beste edozein organismo edo erakundek –berdin dio nortasun juridikoa duen edo ez–, lege horrek bestelakorik xedatzen ez badu.

2/2004 Legearen 17. artikuluak ezartzen duenez, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zereginak dira, besteak beste:

1) Datuak babesteko legeak bete daitezen zaintzea eta nola aplikatzen diren kontrolatzea.

2) Lege eta erregelamenduetan zehazturik dauden baimenak ematea.

3) Beharrezkoa bada, datuen tratamendua datuak babesteko indarrean dagoen legediko printzipioetara egokitzeko beharrezko jarraibideak ematea, beste erakunde batzuen aginpideei ezer kendu gabe.

4) Tartean direnen eskariei eta erreklamazioei kasu egitea.

5) Datu pertsonalak tratatzea dela-eta dituzten eskubideei buruzko informazioa ematea pertsonei.

6) Tratamenduen erantzule eta arduradunei, esateko dutena entzun eta gero, datu-tratamendua indarrean dauden legeetara

Datos.

i) La Comisión Arbitral.

j) Las corporaciones de derecho público, representativas de intereses económicos y profesionales, de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

k) Cualesquiera otros organismos o instituciones, con o sin personalidad jurídica, creados por ley del Parlamento Vasco, salvo que ésta disponga lo contrario.

Que el artículo 17 de la misma Ley 2/2004, establece que son funciones de la Agencia Vasca de Protección de Datos, entre otras:

1) Velar por el cumplimiento de la legislación sobre protección de datos y controlar su aplicación.

2) Emitir las autorizaciones previstas en las leyes y reglamentos.

3) Dictar, en su caso, y sin perjuicio de las competencias de otros órganos, las instrucciones precisas para adecuar los tratamientos a los principios de la legislación vigente en materia de protección de datos.

4) Atender las peticiones y reclamaciones formuladas por los afectados.

5) Proporcionar información a las personas acerca de sus derechos en materia de tratamiento de los datos de carácter personal.

6) Requerir a los responsables y a los encargados de los tratamientos, previa audiencia de éstos, la adopción de las

egokitzeko beharrezko neurriak hartzeko eskatzea.

medidas necesarias para la adecuación del tratamiento de datos a la legislación en vigor.

7) Zehatzeko ahalmena erabiltzea, eta, beharrezkoa izanez gero, diziplinazko prozedurak hasteko proposatzea.

7) Ejercer la potestad sancionadora y, en su caso, proponer la iniciación de procedimientos disciplinarios.

8) Lege hau garatzeko xedapen orokorretako egitasmoei buruzko txostenak egitea, derrigor.

8) Informar, con carácter preceptivo, los proyectos de disposiciones generales que desarrollen esta ley.

9) Funtzio estatistiko publikoari buruzko legeek estatistikako datuen bilketari buruz eta estatistikako isilpekotasunari buruz dakartzaten xedapenak bete daitezen zaintzea, beharrezko jarraibideak ematea, estatistikarako bakarrik sortutako fitxategien segurtasun-baldintzei buruzko irizpenak ematea eta 24. artikuluan aipaturiko ahalmena erabiltzea.

9) Velar por el cumplimiento de las disposiciones que la legislación sobre la función estadística pública establece respecto a la recogida de datos estadísticos y al secreto estadístico, así como dictar las instrucciones precisas, dictaminar sobre las condiciones de seguridad de los ficheros constituidos con fines exclusivamente estadísticos y ejercer la potestad a la que se refiere el artículo 24.

10) Datu pertsonalen fitxategien segurtasuna eta herritarrek fitxategi horiei buruz dituzten eskubideak hobeto babeste aldera, Datuak Babesteko Estatuko Bulegoarekin eta beste autonomia-erkidego batzuetako antzeko erakundeekin lankidetzan aritzea hartarako beharrezkoak diren jarduera guztietan.

10) Colaborar con la Agencia de Protección de Datos del Estado y entidades similares de otras comunidades autónomas en cuantas actividades sean necesarias para una mejor protección de la seguridad de los ficheros de datos de carácter personal y de los derechos de los ciudadanos en relación con los mismos.

11) Lege honetako 2.1 artikuluan aipatutako herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea.

11) Atender a las consultas que en materia de protección de datos de carácter personal le formulen las administraciones públicas, instituciones y corporaciones a que se refiere el artículo 2.1 de esta ley, así como otras personas físicas o jurídicas.

III

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak, nortasun

III

Que la Agencia Vasca de Protección de

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa
Agencia Vasca de Protección de Datos

juridiko propioa izan arren eta bere eginkizunak herri-administrazioekiko inongo loturarik gabe betetzen baditu ere, lotura berezia dauka Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin. Esate baterako, 2/2004 Legeak hauxe ezarri du 10. artikuluan:

Datos, aún teniendo personalidad jurídica propia y actuar con plena independencia de las administraciones públicas en el ejercicio de sus funciones, mantiene una especial vinculación con la Administración General de la Comunidad Autónoma. Así, la Ley 2/2004 establece en su artículo 10 que:

"3.- *Ondarerik eskuratzeko edo ezer kontratatzeko, indarrean dagoen zuzenbide publikoa bete beharko du Datuak Babesteko Euskal Bulegoak. Bulegoaren ondasun eta eskubideak Euskal Autonomia Erkidegoaren ondarekoak izango dira.*

*"4.- Auzibidean jardun beharra badago, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko zerbitzu juridikoen ardura izango da Datuak Babesteko Euskal Bulegoa ordezkatzea eta defendatzea, arauetan xedaturik daukatenaren arabera."*

"3.- *La Agencia Vasca de Protección de Datos estará sujeta al derecho público vigente en materia de adquisiciones patrimoniales y contratación. Sus bienes y derechos pertenecerán al patrimonio de la Comunidad Autónoma del País Vasco.*"

*"4.- La representación y defensa en juicio de la Agencia Vasca de Protección de Datos estará a cargo de los servicios jurídicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, conforme a lo dispuesto en sus normas reguladoras."*

Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrekontuari dagokionez, 2/2004 Legearen 13. artikuluan ezartzen denez, "*Datuak Babesteko Euskal Bulegoak urtero-urtero aurrekontu-aurregitasmoa egin eta onartu beharko du. Gero, Eusko Jaurlaritzara bidali beharko du, han, behar bezain ondo bereizita, Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan sar dezaten, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-sistema arautzen duten legeen arabera. Lege horiek bete beharko ditu bere aurrekontua aldatzeko, gauzatzeko eta kitatzeko araubideari dagokionez. Horretarako, kontuan hartu beharko du erakundearen izaera, kontabilitate publikoaren araubidea eta Autonomia Erkidegoko Administrazioko Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren ekonomia, finantza eta kudeaketa arloko kontrola; horrek denak ez du esan nahi ekonomia*

Respecto del presupuesto de la Agencia Vasca de Protección de Datos, la citada Ley 2/2004 establece, en su artículo 13, que "*La Agencia Vasca de Protección de Datos elaborará y aprobará con carácter anual el correspondiente anteproyecto de presupuesto y lo remitirá al Gobierno Vasco para que sea integrado, con la debida independencia, en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma, de acuerdo con la legislación reguladora del régimen presupuestario de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Estará sometida a esta legislación en lo relativo al régimen de modificación, ejecución y liquidación de su presupuesto, atendiendo a estos efectos a la naturaleza de la entidad; al régimen de contabilidad pública y al control económico financiero y de gestión del*

*eta finantzetako eta kontularitzako jarduerak Herri Kontuen Euskal Epaitegiak kontrolatuko ez dizkionik."*

IV

Datuak Babesteko Euskal Bulegoak eta Jaurlaritzaren Lehendakaritzak, 2007tik hona, elkarlanean jardun dute datu pertsonalen babeserako funtsezko eskubidea dela-eta Euskal Gizarteak duen iritzia aztertzeko txostenak egiten.

Lankidetza hori eta lortutako emaitzak aintzat hartuta, eta datu pertsonalen babesaren kultura euskal herritarren artean ezagutarazteko eta hedatzeko asmoz elkarlanean jarraitzea komenigarria dela ohartuta, bi alderdiek hitzarmen hau formalizatu dute, klausula hauen arabera:

**KLAUSULAK:**

**LEHENENGOA.- Hitzarmenaren xedea.**

Hitzarmen honen helburua da Eusko Jaurlaritzaren, Lehendakaritzaren bidez, eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren arteko lankidetza ezartzea, euskal errealitate sozialean datu pertsonalak babesteko funtsezko eskubidearekin lotutako azterketa soziologiko kuantitatibo eta kualitatiboak egiteko.

*Departamento de Hacienda y Administración Pública de la Administración de la Comunidad Autónoma, sin perjuicio de la fiscalización de sus actividades económico-financieras y contables por el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas."*

IV

Que desde el año 2007 la Agencia Vasca de Protección de Datos y la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza han colaborado en la elaboración de estudios destinados a analizar la percepción de la Sociedad Vasca respecto al derecho fundamental de la protección de datos personales.

A la vista de esta colaboración y de los resultados alcanzados, ambas partes conscientes de la conveniencia de continuar cooperarando para conocer y extender la cultura de la protección de datos personales entre la ciudadanía vasca, formalizan el presente convenio de acuerdo con las siguientes cláusulas:

**CLÁUSULAS:**

**PRIMERA.- Objeto del Convenio.**

El presente convenio tiene por objeto articular la colaboración entre el Gobierno Vasco, a través de la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza, y la Agencia Vasca de Protección de Datos para la realización de estudios sociológicos cuantitativos y cualitativos relacionados con el derecho fundamental a la protección de datos personales en la realidad social vasca.

**BIGARRENA.- Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren konpromisoak.**

Jaurlaritzaren Lehendakaritzak, Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen bidez, Datuak Babesteko Euskal Agentziarekin lankidetzan aritzeko konpromisoa hartu du, ondoko zereginak betetzeko:

- Bulego horri, bere eskumeneko gaietan, ikerketa soziologikoaren arloan aholkularitza eskaintzea.
- Ikerketa-proposamenak egitea, euskal gizarteak datuen babesaren arloa hobeto eta sakonago ezagutu dezan.
- Bi alderdien artean adostuta egin nahi dituzten ikerketak diseinatzea.
- Martxan jarritako ikerketak kudeatzea.
- Lortutako informazioa aztertzea eta dagozkion txostenak egitea.
- Adierazle-sistema bat prestatzea, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aginte-taularako modukoa.

**SEGUNDA.- Compromisos de la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza.**

La Presidencia de Gobierno-Lehendakaritza, a través del Gabinete de Prospección Sociológica, se compromete a colaborar con la Agencia Vasca de Protección de Datos para llevar a cabo los siguientes cometidos:

- Asesorar a dicha agencia en investigación sociológica en temas de su competencia.
- Elaborar propuestas de investigación con el fin de incrementar y profundizar en el conocimiento de la sociedad vasca en materia de protección de datos.
- Diseñar las investigaciones que, de común acuerdo entre ambas partes, se decidan abordar.
- Gestionar las investigaciones puestas en marcha.
- Analizar la información resultante y elaborar los informes correspondientes.
- Elaborar un sistema de indicadores que pueda ser incorporado al cuadro de mando de la Agencia Vasca de Protección de Datos.

**HIRUGARRENA.- Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren konpromisoak.**

- Prospekzio Soziologikoen Kabineteari arlo honetan espezializatutako euskarri teknikoa eskaintzea, dagozkion diseinuak egiteko.

**TERCERA.- Compromisos de la Agencia Vasca de Protección de Datos.**

- Facilitar al Gabinete de Prospección Sociológica el soporte técnico especializado en la materia para la

elaboración de los correspondientes diseños.

- Zenbait erakundetan datu pertsonalen fitxategiak kontrolatzen ditu; bada, erakunde horien direktorioa emango du, beharrezkoa den guztietan.

- Facilitar el directorio de organismos sobre los que ejerce funciones de control de ficheros de datos de carácter personal, siempre que sea preciso.

- Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen irudia ezagutarazten laguntzea. Horretarako, Datuak Babesteko Euskal Bulegoak konpromisoa hartzen du, hitzarmen honen aplikaziotik sortutako azterketak erabili edo aipatzen dituenean, lankidetza hori eta Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako lana aipatzeko.

- Contribuir a la difusión pública de la imagen del Gabinete de Prospección Sociológica. Para ello la Agencia Vasca de Protección de Datos se compromete a mencionar tal colaboración y el papel desempeñado por el Gabinete de Prospección Sociológica, en todas las situaciones y medios en los que se haga uso o mención de los estudios derivados de la aplicación de este convenio.

- Ikerketaren bat egiteko kanpotik lanak kontratatu behar direnean, kontratua bera egitea eta kontratuak dakartzan kostuak bere gain hartzea.

- Contratar y asumir los costes de las prestaciones en aquellos supuestos en los que una investigación requiera la contratación de trabajos externos.

**LAUGARRENA.- Urteko Ekintzen Plana.**

Bi aldeek urte hasiera bakoitzean jarduera programa bat landuko dute eta urtean zehar burutuko diren eginkizunak zehaztuko dituzte programa horretan.

**CUARTA.- Plan anual de actividades.**

Las partes elaboraran al comienzo de cada año un programa de actuación en el que se detallarán las tareas concretas que se llevarán a cabo durante ese ejercicio.

**BOSGARRENA.- Jarraipena.**

1.- Hitzarmenaren jarraipena egiteko eta hitzarmena behar bezala interpretatzeko eta sor daitezkeen zalantzak ebazteko, jarraipenerako batzordea ezarri da, alderdi bakoitzeko bi ordezkariz osatutakoa. Batzorde horrek zehaztuko du nola jardun elkarrekin hitzarmen honen garapenean.

**QUINTA.- Seguimiento.**

1.- Para el seguimiento del Convenio, así como para una correcta interpretación y la resolución de posibles dudas se establece una Comisión de seguimiento, integrada por dos representantes de cada una de las partes. Dicha Comisión determinará el mecanismo de actuación conjunta en el desarrollo del

presente Convenio.

2.- Batzordea gutxienez urtean behin bilduko da, bi erakundeen jarduera koordinatzeko eta Urteko Ekintzen Plan bat egiteko. Dena dela, aldian-aldian harremanak izan ditzakete beharrezkoa den guztietan.

2. - La Comisión se reunirá al menos una vez al año, con la finalidad de coordinar la actuación de ambas entidades y elaborar el Plan Anual de Actividades, sin perjuicio de mantener contactos periódicos para todos aquellos asuntos que lo requieran.

Batzordearen idazkariak bilera bakoitzaren akta egingo du. Idazkari hori bi alderdiek elkarrekin adostuta izendatuko dute.

De cada sesión se levantará un acta por el secretario o secretaria de la Comisión, que será designado/a de común acuerdo por ambas partes.

3.- Jarraipenerako batzordearen araubide juridikoa Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen II. tituluko II. kapituluan bildutako kide anitzeko organoei buruzko arauetara egokituko da.

3.- El régimen jurídico de la Comisión se ajustará a las normas sobre Órganos Colegiados contenidos en el Capítulo II del Título II de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**SEIGARRENA.-.- Indarraldia.**

**SEXTA.- Plazo de vigencia.**

1.- Hitzarmen hau 2014ko urtarrilaren 1etik egongo da indarrean eta bi urteko iraupena izango du. Epe hori automatikoki luzatu ahal izango da, bertan behera uzteko honako arrazoiren bat egon ezean:

a) Alderdietako batek hitzarmena salatzea, idazki bidez, bi hilabeteko aurrerapenarekin.

b) Hitzarmenaren klausulak ez betetzea.

c) Bi alderdiak hitzarmena bertan behera uzteko ados egotea.

1. - El presente Convenio entrará en vigor el 1 de enero de 2014 y mantendrá su vigencia durante dos años prorrogables automáticamente por periodos idénticos, siempre que no medie alguna de las siguientes causas de resolución:

a) La denuncia de cualquiera de las partes formalizada por escrito con dos meses de antelación.

b) El incumplimiento de las cláusulas del Convenio.

c) El mutuo acuerdo de las partes.

2.- Hitzarmena salatzeak ez du ekarriko laugarren

2.- La denuncia del Convenio no supondrá la

klausularen babespean formalizatutako Urteko Ekintzen Plana berehala suntsiaraztea, izan ere, hasitako jarduerek amaitu arte iraungo dute.

inmediata resolución del Plan Anual de Actividades formalizado al amparo de la cláusula cuarta continuando, en todo caso, las actuaciones ya iniciadas hasta su finalización.

**ZAZPIGARRENA.- Hitzarmen mota eta jurisdikzio eskuduna.**

**SÉPTIMA.- Naturaleza y jurisdicción competente.**

Hitzarmen hau administratiboa da, eta Sektore Publikoaren Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen aplikazio-eremutik kanpo dago, 4.1. c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

El presente convenio tiene naturaleza administrativa, quedando excluido del ámbito de aplicación la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, al amparo del artículo 4.1.c) de la misma.

Hitzarmen hau interpretatzean eta gauzatzean sor daitezkeen desadostasunak, Jarraipenerako Batzordeak konpontzen ez baditu, administrazio-auzietarako jurisdikzioak ebatziko ditu.

Las controversias que puedan surgir sobre la interpretación y ejecución que no sean resueltas por la Comisión de Seguimiento, se sustanciarán ante la Jurisdicción Contencioso Administrativa.

**Jesús María Peña Martinez**

*Lehendakaritzako idazkari nagusia*
*Secretario General de la Presidencia*

**Iñaki Pariente de Prada**

*Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren zuzendaria*
*Director de la Agencia Vasca de Protección de Datos*